

Trantsizio geopolitiko luzea bezain bortitza

MUNDUARI SO 2024



Rodion Kutsaiev, Unsplash

Aurkibidea

1. Nazioarteko ordenaren kaosa.....	5
2. AEBen hegemoniaren gainbehera.....	7
2.1 Egiturazko aldaketak botereak eskuratzeko	9
3. Nazioarteko agertoki bortitza	11
4. Ikusmirak.....	13
Ikusmira 1: Demokrazia liberalen higadura	13
Ikusmira 2: Aro baten amaiera: Nazio Batuen gainbehera eta bake-arkitektura berri baten agerpena	16
Ikusmira 3: Green politiken atzera urratsak Europan	19
Ikusmira 4: Migrazio politikak krisi ekosozialaren garaian.....	22
Ikusmira 5: BRICS: Narratiba edo alternatiba?.....	25
Ikusmira 6: Siria. Ordena geopolitikoaren joskera guztiak kraskatzen ari dira (edo inperioren kontraerasoa).	28
5. Hainbat gogoeta	31



Daniele Levis Pelusi, Unsplash

MUNDUARI SO 2024

Sarrera

Urtero bezala, Iratzar Fundazioan munduari so egin diogu Euskal Herritik. 2023/24ko irakurketan, aldi horren azterketa geopolitikoak egiteaz gain, 2024rako hainbat aurreikuspen azaldu genituen. Orduko analisiari 'Autoritarismo eta gerra, nazioarteko ordenaren transizioaren adierazle' izenburua jarri genion, AEBen hegemoniaren gainbeheran arreta jarri, eta horren gakoak zeintzuk ziren azaldu nahi genuelako. Izenburuak orduko testuinguru globalaren ondorioak laburtzen zituen, baita hipotesi bat aurreratu ere; alegia, potentzia hegemonikoaren gainbeherak lehia geopolitikoak ahalbidetu du, eta horrek biolentzia politiko eta militarreko fase luze bat zabalduko du.

Aipaturiko analisisian, potentzia hegemonikoa definitzen laguntzen duten kooperazioaz eta kompetentzia esferaz¹ ere mintzo ginen. Aurten ere ideia horretatik tiraka arituko gara. Potentzia amerikarra eta horrek ordezkatzeko duen mundu kapitalistaren eredua kuestionatzeak badu ondorio zuzen bat: lehia nagusitzea. Eta horrek, era berean, forma askotariko biolentziak dakartza: genozidioak, feminizidioak, gerrak, lurralde antolaketa berriak, eta estatu egiturak egokitzea kompetentzia esferarekin bat etorritz.

Testuinguru horretan, erabat kuestionatuta daude Bigarren Mundu Gerraz geroztik neoliberalismoak bultzatutako nazioarteko arau eta arkitektura instituzionalak –kooperazio esferan leudekeenak-. Eta, era berean, atxikimendu askean oinarrituta alternatiba izan zitezkeen nazioarteko bestelako botere osaerak -BRICS, adibidez- ez dirudite, gaur-gaurkoz, eredu antagonikoak direnik, interesgarriak izanik ere. (Ikusmirak 1, 2, 5).

Gauzak horrela, Munduari So deitzen dugun irakurketa honetan, gaurko globalizazio neoliberal eta berau ordezkatzeko duen potentzia hegemonikoaren gainbehera iraunkorrari helduko diogu. Gainbehera hori krisi ekologikoen, krisi geopolitikoen, arraza eta inperio zapalkuntzaren krisiaren, demokraziaren krisiaren... sustraietan dagoelakoan gaude, eta mundu zatiketarako eta gatazkarako bidea zabaldu duelakoan.

lazko Munduari So analisisian formatua berri genuen, eta aurten horrekin jarraituko dugu. Jakina denez, aipatzen genuen marko orokorra urtetik urtera aldatzen ez bada ere, hura

marratzen duten ardatz nagusiak areagotu ote diren landu dugu; eta ondoren, aurtengo ikusmira sei esparrutan jarri dugu: demokraziaren higadura, Europako Batasuna eta green ekonomia, Europako Batasuna eta migrazioa, Nazio Batuen gainbehera eta bake arkitektura berri baten beharra, Hegoaldeko erantzunak, eta Siria.

1. Ikusi 2023ko Munduari So (5. orria).



Daniele Levis Pelusi, Unsplash

1. Nazioarteko ordenaren kaosa

Egungo une geopolitikoak osatzen duten zertzelada batzuk gogoratuko ditugu, gaitetik bada ere:

Batetik, AEBen ahultze geopolitikoak irekitako konfigurazio berrietarako aukerak daude. Batez ere, Iraken eta Afganistanen izandako porrotetatik abiatuz, eta egun Israelgo estatu genozidari baldintzarik gabeko babesa emateagatik, AEBek bizi duten gainbeherak hainbat potentziaren arteko askotariko konfigurazioak ahalbidetzen ditu.

Bestetik, potentzia handien arteko harremanari dagokionez, batik bat Txina eta AEBen arteko lehiak hainbat forma hartzen ditu, eta nazioarteko ordena ezegonkorraren bidez gauzatzen da.

Gainera, AEBak Ukrainako inbasioa aprobetxatzen ari dira aurretiaz krisian zen NATO Europako beste herrialde batzuetara zabaltzeko, batez ere, Ekialdera eta Iparraldera. Aurreko Munduari So-n genioen bezala, helburu hori begiz jo zuen 2022ko uztailean, NATOren "kontzeptu estrategiko berria" birformulatzean; eta 2024an Washingtonen berretsi egin du. Berria ez bada ere, Txina bere lehiakide estrategiko nagusitzat hartu du berriz ere. Eta horren erakusgarri da NATOk Afrikan jarri duen interesa. Jakina baita, AEBek eta frantses estatuak boterea galdu dutela kontinente horretan, eta Errusiak eta, batik bat, Txinak lortu dutela protagonismoa.

Horrekin batera, globalizazio neoliberalaren interdependentzia ekonomikoan, energetikoan eta teknologikoan oinarritu da hamarkadetan. Baina horren ondorio lazgarriak eta kalteak zeharkatu gaituzte azken garaiotan: pandemia garaian, edo Ukraina inbaditzean Errusiar jarritako nazioarteko zigorren ondorioekin nabaritu ditugu batik bat. Europako eta Euskal Herriko langileria eta herri sektoreen eguneroko errealitatera heldu dira ondorio horiek; halaber, eszenatoki politikoak formateatzea ere eragin dute, esaterako, Alemaniako edo Frantziako krisi politikoetan ikus daitekeen moduan.

Horrekin guztiarekin, mendebaldeko blokearen estrategia birdefinitu da. AEBek arlo militarrean zuten nagusitasuna indartu dute (Ukrainako gerra, Ekialde Hurbila...); eta Europako Batasunak estrategia horri jarraitu dio, eta harekiko menpekotasuna agertu du. Erabaki hori herdoiltzen ari den autonomia estrategikoaren proiektuari eutsiz hartu da, baina berau gauzatu gabe eta, batik bat, konstituzionalismo neoliberal zaharkitutik ateratzeko beharko lituzkeen egitura aldatetarako ezintasuna agertu du.



Ave Calvar, Unsplash

2. AEBen hegemoniaren gainbehera

2024an munduko 70 herrialde baino gehiagotan herritarrak bozkatzera deitu dituzte. Haien artean, Europako Batasunean, Mexikon, Errusian, Japonian, Venezuelan, Irlandan, Uruguaien... Halere, AEBetako hauteskondeek garrantzi berezia hartu dute fase honetan. Herrialdearen hegemonia ekonomikoa zalantzan jarrita, munduaren zentroa ekialderantz lerratuta, eta agertoki globala multipolaritatera bidean egin dituzte hauteskondeak azaroaren 5ean. Ohiko lehia giroaz gain, munduko potentzia nagusiak bere gaurdainoko boterea mantentzeko lehia giroari aurre egin behar izan dio. Donald Trump izango da presidente, eta, zantzu guztien arabera, konpetentzia esfera (eta ez kooperatiboa) lehenetsiko du. Inork ez du zalantzarik bere garaipenak AEBetan zein nazioartean eragin nabarmena izango duela.

Trumpek aurkituko duen lurraldea ez da, ordea, Madeleine Albrightek 1989an deitzen zuen “ezinbesteko nazioa²”. Izan ere, AEBetako egungo boterea errealitate militar gordinetan oinarritzen da. Era berean, bere nagusitasuna munduko sistema energetiko eta finantzarioetatik dator, eta aberastasun globalaren % 30a du. Baina ez du “ezinbesteko nazioa” aurkituko. Zergatik dirudi geldiezina munduko erraldoia izan denaren hegemonia galerak? Potentzia amerikarra ez baita erronka sistemikoei erantzuteko gai, ezta mundu ordenan beste potentziekin dituen arazoei irtenbidea emateko gai ere. Aitzitik, munduko ordenan Hegoalde Globalerako potentziek (egun BPGren % 36a) arazo horiei soluziobideak topatzeko duten gaitasuna handiagoa izan daiteke.

Iparramerikar elite zuri hetero eta kapitalistak jakin badaki fase hau ezegonkorra eta bortitza izango dela, baita aldaketa beharrezkoa ere duela kapitala metatzen segitu nahi badu. Bestela esanda, elite kapitalistak behar ditu nazioarteko gerra eta autoritarismoa sostengatuko dituen instituzio amarauna eta politikak, eta horrek bestelako estatu egiturak eskatzen ditu.

Zer estrategia garatuko du Trumpen gobernuak munduko sisteman izan duen potentzia posizioa mantentzen saiatzeko? Zer ondorio izango ditu estrategia berriak? AEBetako gobernu berriak nazio eta kanpo esferari dagokienez “Shock doktrina 2.0” logikari ekingo diola dirudi, lurraldea, nazioa eta instituzio publikoak pribatizatzeke askotariko botere koertzitiboak mobilizatuz.

2. AEBetako estatu idazkaria izan zenak “ezinbesteko nazioa” kontzeptua erabili zuen, munduko egonkortasuna bermatzeko AEB ezinbesteko nazioa zela azaltzeko, garaian AEBek zuten nagusitasuna eta etorkizunari begiratzeko boterea zela medio.



Max Letek, Unsplash

2.1 Egiturazko aldaketak boterea eskuratzeko

Trumpen garaipenak SR Cleggek botereari buruz esandakoak ekarri dizkigu burura. Izan ere, pentsalari horren ustez, botereak forma eta norabide anitz ditu hura lortzeko eta erabiltzeko ahalmenari dagokienez. Esaterako, estatu egiturek ez dute dena baldintzatzen; baina, era berean, ezinbestekoak dira.

Horregatik, urtarrilaren 20tik aurrera, AEBetako presidentek estatu egiturak bereganatuta, botere forma errealak lortu ahal izateko, egitura horien eraldaketa sakon bati ekingo dio. Zein zentzutan eraldatuko ditu? Trumpen gobernuak estatuaren egiturak pribatizatu nahiko ditu, estatuaren funtzio publikoak muturreraino txikiagotuz.

Aipaturiko bide hori ez da berria, izan ere, 2016ko bere lehen legegintzaldian forma

hartzen hasi bazen ere, presidenteak ez zuen gaur duen aginte maila orduan. Egun, errepublikarrek Senatua eta Ordezkarien Ganbera kontrolatuko dituzte, presidentea izango dute, eta baita Auzitegi Gorena ere. Beraz, hainbat estatu egitura izango dituzte euren erabakien zerbitzura. Egingo diren egiturazko aldaketek, esan bezala, pribatizazioa izango dute mui-nean. Presidentearen ustetan, eredu kapitalis-taren dekadentzia egungo garaiak estatuaren bestelako burokrazia behar du, eta Elon Musk eta Vivek Ramaswamyri eman die zeregin hori.

Horrez gain, Trumpen politiken ardatzetariko bat AEBetako ekonomian politika protekzio-nistak ezartzea izango da. 2016an egin bezala, inportazioentzat muga zergak jarriko dituela adierazi du. Alde batetik, erabaki politiko ho-rren arrazoa omen da herrialdea berrindustria-lizatzea eta gainbehera ekonomikoa geldiaraz-tea. Baina baliteke, aurrekoan gertatu antzera, produktuak garestitzea eta inflazioa handitzea, beste ezer baino gehiago. Halere, beste alde batetik, ikusteko dago jartzea lortuko duen hala ez ere. Egungo merkataritza jokalekuan ez da jokalaria bakarra, eta presioak, erantzun-ak nahiz talkak sortuko dituenaren jakitun da. Esaterako, Txinak hornikuntza kateak eteteare-kin mehatxatu du (gogoratu aurretiaz aipaturiko interdependentzia ekonomikoa), eta zenbait estaturekin sinatutako Tratatu Libreko Akor-dioekin talkak sor daitezke (Mexiko, Kanada, Europako Batasuna...). Eta erregai fosilen eko-nomia bultzatuko du, klima larrialdiaren nega-zionismoari karta zuria emanez.

Horrez gain, AEBetako gobernu honen politika entzutetsuenetan egongo dira ezein eskubide-ren aurkako politika gogorrak, izan migrazioari lotutakoetan, edo LGTBIQ+ komunitatearen eta emakumeen gorputzen gaineko eskubideei lotutakoetan.



Tbel Abuseridze, Unsplash

3. Nazioarteko agertoki bortitza

Donald Trumpek berriz hauteskundeak irabaztea inflexio puntu bat izan da munduko boterearen birbanaketa testuinguru honetan. Eta bere gobernu erabakiek nahiz jarrera politikoek mugaz gaindiko eragina izango dute arlo guztietan, bakean eta gerran, ekonomian eta kliman.

Trumpen bigarren presidentetza honek amerikarren hegemoniaren beherakadan sakondu dezake. Lehia geopolitiko global hori agerikoa da, Txina eta Errusiak zalantzan jartzen dute hegemonia hori, eta gerra-gatazka jakin batzuetan are ageriagokoa da. Multipolaritatea mehatxu bat da AEBen hegemoniarentzat, bere interes geopolitikoentzat; horregatik, garai konplexuak eta bortitzak datoz, arau instituzionalik gabekoak, Palestinan ikusi dugun bezala. Hegemoniaren konfigurazioa

zio berria gatazka horien bilakaeraren mende egongo da, jakinda gatazka guztiak elkarloturik daudela.

laz genioen bezala, kapitalismoaren historian, militarismoa eskuz esku joan ohi da kapitalaren metaketaren fase guztiekin. Oraingo fase historiko honetan ere, segurtasun belikoak eta militarismoak AEBen kanpo politika ardaztu dute, eta ondorioz, lurraldeen militarizazioa eta gerra munduaren luze-zabalean hedatu da, ondorio lazgarriak utziz pertsonengan eta lurrarengan.

Hori dela eta, nekez sinets dezakegu, batzuk iradoki duten bezala, Trumpen politika protekzionistak aurreko gobernuen esku hartze belizistatik urrun dezakeenik. Aitzitik, uste dugu potentzia amerikarraren hegemoniaren dekadentziak ziklo luze eta bortitz bat eragin deza-keela, norgehiagoka geopolitiko handiagokoa. Politika antimilitarista herri eta klase zapalduen borrokak barneratuko dituen pentsamendu internazionalistatik etorriko da, eta ez munduko potentzien agintea eskuratzen duten handikien kalkulutik.



Matthew Woinarowicz, Unsplash

4. Ikusmirak

Ikusmira 1

Demokrazia liberalen higadura

Mendebaldeko demokrazia liberalen egungo krisiaren aurrean, dikotomia faltsu bat sustatzen ari da: goraka doan faxismoaren aurrean, demokrazia liberala da alternatiba bakarra. Horrela ezkutatu nahi duten demokrazia liberala testuinguru politiko zehatz baten ondorioa izan da. Hortaz, sorreran eta garapenean inplikaturako indarrak zein izan ziren aztertzea komeni da.

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, kapitalismo europarrak oso une delikatua bizi izan zuen.

Ezkerreko indarrek nazismoaren aurkako erresistentzia gidatu zuten, eta pisu handia hartu zuten. Horren aurrean, Europako oligarkiak itun bat proposatu zien indar progresistei: egungo demokraziak sorrarazi zituen, boterea partekatzeko. Ekonomiaren arloan, ongizate-estatua sortu zen, eta horrek, besteak beste, enplegu osoa, gizarte-babesa eta errentak banatzeko politika ekarri zituen. Eta esparru politikoan, joko ezkerreko alderdi politikoei ireki zitzaion, baita langileen sindi-

katuei ere lan esparruan. Trukean, langileen alderdiek -sozialdemokratek, batez ere- aldarrikapen iraultzaileak alde batera uzteko konpromisoa hartu zuten.

Itun horrek 80ko hamarkadaren hasierara arte funtzionatu zuen. Orduan, oligarkiak deliberatu zuen indar aurrerakoia nahikoa ahuldu zituela akordio haiek higatzen hasteko. Ronald Reaganekin eta Margaret Thatcherrekin bultzatu zituzten politika neoliberalak: lan-harremanak desarautzen eta gizarte-prestazioak murrizten hasi ziren. SESBen erorketak prozesua azkartu zuen, komunismoak mehatxu izateari utzi baitzion. Historia amaitu bazen, zertarako ibili alferkeriatan. Mendebaldeak globalizazioan zuen nagusitasun-posizioari esker, munduko gainerako lurraldeetako aberastasuna drainatzen jarraitu ahal izan zuen, eta, ondorioz, murrizketek eragin erlatiboa izan zuten mendebaldeko langileengan. Gutxi izan ziren aldaketak zalantzan jarri zituztenak, eta sistema politikoak formalki ez zuen aldaketa handirik jasan; egia esan, sozialdemokrazia jada sistemaren parte bihurtu zen. (Koalizio handiak, CDU eta SPDren artean, egon dira Alemanian, adibidez). Julius Nyerere Tanzaniako presidentek esan zuen moduan: "AEB ere alderdi bakarreko estatua da, baina ohiko bitxikeria amerikarra: horietako bi ditu". Esaldiak mendebaldeko demokrazia liberala ezin hobeto definitzen du.

Milurteko berrian eta euroaren sorrerarekin Europan ongizate-estatuaren desegitea sakontzen da. Europan, erabaki politikoen epizentroa Bruselara eraman zuten, defizita kontrolatzeko politikekin lehenik, eta austeritatearekin gero. Horrek aro berri bat ireki zuen Europako demokrazian. Angela Merkel kantzilerrak "merkatuaren arabeko demokrazia" gisa definitu zuen. Definizio horrek muga zorrotzak ezartzen dizkio gobernuak egin dezakeenari edo egin ezin duenari. Funtsean, Europaren eraikuntza-

ren oinarri neoliberalak zalantzan jartzeko edozein aukera lurperatu zuen, 2015ean Grezian egindako erreferendumak agerian utzi zuen bezala. Izan ere, praktikan, gobernu neoliberalaren ordezkio politikak hustu egiten dira, eta horrek demokrazia liberala edukirik gabe uzten du.

Demokrazia liberalen mugak geroz eta estuagoak direla oso ondo erakusten du, adibidez, Alderdi Demokrata iparramerikarrak eta Laborista britainiarrak beren buruzagi karismatikoak (Bernie Sanders eta Jeremy Corbyn) bota izanak, langile klasearentzat hobekuntzak planteatzen zituztelako, eta horiek kontraesanean zeudelako kapital handia asetzeko politika neoliberalarekin. Bere garaian Warren Buffettek esan zuen: "Klase borroka existitzen da, eta gu aberatsok irabazten goaz". Hori da funtsean gertatzen ari dena, eta oligarka guztiek ondo dakite. Izan ere, AEBetako hauteskunde-kanpainari buruz, Larry Fink-ek BlackRockeko CEOak honela esan zion Financial Timesi: "Nekatuta nago entzuteaz gure bizitzako aukeraketarik garrantzitsuena dela. Errealitatea da denborak aurrera egin ahala ez duela axola izango" (2024/10/21).

lido horretan, demokrazia liberaletan ahal denaren marjina gehiago murriztearen alde, lawfare-aren praktikak indarra hartu du, hau da, bide judiziala erabiltzea lider politikoei izen ona zikintzeko edo kargutik botatzeko eta hauteskundeetako emaitzak aldatzeko. Hauteskunde-prozesuak geroz eta gehiago daude zalantzan: espero diren emaitzak lortzen ez direnean, edo atzerritarren esku-sartzeak salatzen da, edo iruzurra. Eta horrek funtzionatzen ez badu, estatu-kolpeak martxan jartzen dira. Adibideak ez dira falta. Baldintza horietan, hauteskunde-prozesuek geroz eta ospe txarragoa dute herriaren bo-

rondatea adierazteko sistema gisa. Era berean, demokrazia liberala geroz eta gehiago ari da errepresioaz baliatzen: bide administratibo eta polizialak protestak isilarazteko. Frantziako Estatuan gizarte-erakundeak legez kanpo uztera iritsi da Gobernuak: Les Soulèvements de la Terre desegin zuen, ondoren epaileek erabakia baliogabetu egin baitzuten.

NATOn eta Errusiaren arteko gerrak Ukrainan, eta Israel Palestinan egiten ari den genozidioak are gehiago areagotu dute eztabaida publikoaren gaineko kontrola. Ez dira onartzen militarismo atlantistarekin bat ez zetozen iriztiak, ezta genozidio salaketak ere. Aldi berean, Europako erakundeen ildo belizistarekin bat ez datozen liderrak deabrutzen dira. Joera horrek Robert Fico Eslovakiako lehen ministroaren aurkako atentatua elikatu du. Gainera, testuinguru horretan, diskurtso eta adierazpen faxistak geroz eta gehiago onartzen dira.

Mendebaldeko herrialdeen fatxada demokratikoa txiki-txiki egiten ari da. Atzean oligarkia ekonomikoaren esku luzea igartzen da, kanpoko gerra eta langile klasearen aurka barruko gerra egiteko prest agertzen da, bere pribilegio handiei eusteko. Joera horren aurrean, ezkerrek ezinbestean bere demokrazia ereduan sakondu behar du, benetako herriaren gobernuak eraiki ahal izateko.



Ikusmira 2

Aro baten amaiera:

Nazio Batuen gainbehera

eta bake-arkitektura

berri baten agerpena

Higadura sakona jasan du azken urteotan gerraostean eraiki eta gaur arte zutik mantentzen den nazioarteko marko instituzionalak, Nazio Batuen Erakundea buru duela. Hala, bakearen eta segurtasunaren gotorleku behar zuen hark eragiteko gaitasuna, garrantzia eta prestigioa bera ere galdu ditu, jaiotzen ari den nazioarteko ordena berrira ezin egokituta.

Gaur egun ezagutzen dugun nazioarteko zuzenbidearen zimenduek, neurri handi batean, Biga-

rren Mundu Gerraren osteko agertokian dituzte beren sustraiak. Gatazkaren tragediak agerian utzi zuen arkitektura global berri baten beharra, eta testuinguru horretan sortu zen, besteak beste, Nazio Batuen Erakundea, nazioarteko zuzenbidea, ordena, garapen ekonomiko eta soziala eta giza eskubideak bermatzea helburu zuen erakundea. Argia zen paradigma: multilateralismoa eta nazioen subiranotasuna eta haien arteko berdintasuna bermatuko zituen mundu berri bat eraikitzea zen helburua.

Ordena berri horren oinarriak Nazio Batuen Gutunean jaso ziren, eta aipatu paradigma bortxaezin bilakatu asmo zuten printzipioetan oinarritzen zen: kanpo injerentziarik eza, gatazkak modu negoziatu eta baketsuan konpontzea, eta herrien autodeterminazio eskubidea babestea, besteak beste. Hala ere, hankamotz jaio zen itxuraz sendoa zirudien sistema, eta denbora-epe laburrean aireratu zituen bere lehen mugak.

Eztabaida handiegirik piztu gabe esan daiteke nazioarteko zuzenbide modernoaren sorrerako printzipioek indarra eta eraginkortasuna galdu dutela. NBE, gerraosteko berotasunean jaio eta berez mundu mailan bakea eta egonkortasuna bermatu beharko lituzkeen erakundea, paralisian dago egun, bateko eta besteko interes gurutzatuen amaraunean harrapatuta, sinesgarritasun guztia galdua.

Hamaika izan daitezke egun bizi dugun egoera hori eragin duten arrazoiak, baina bada aldarrikatzen duenik ere NBE ez dela inoiz izan ordezkatu nahi izan duen arbitro inpartzial hori; alegia, negoziatorako eta diplomazia eraginkorrerako foroa izan ordez, potentzia handien interesei, batez ere estatubatuarreri, so aritu den erakunde bat izan dela bere sorreratik.

Erakundea bere baitako botere-harremanek gidatu izan dute historikoki, nagusiki Segurtasun Kontseilukoek, non bost kide iraunkorren (AEB, Frantzia, Errusia, Txina eta Erresuma Batua) beto-eskubideak gatazkak konpontzeko ekimenak blokeatu dituen etengabe, gerrak eta krisi humanitarioak etengabe iraunaraziz.

Sorrerako printzipioen higadura, baina, ez du soilik beto-eskubideak gauzatzen. Doktrina interbentzionistak eta unilateralistak hedatzeak, edota “esku-hartze humanitarioen” izenean egindako kanpo-injerentziak, sarri, aitzakia bat

baino ez dira izan potentziek beren interesen arabera jarduteko, nazioarteko zuzenbidea modu selektiboan eta interesatuan erabiliz. Zentzu horretan, aipatzekoa da ere nazioarteko arkitektura eta sistema ekonomikoaren arteko elkarrekintza ere; urte luzez, kapitalismo basatiena hedatzeko erabili izan dute AEBek beren indar militarra, NBEren baitako sare instituzional guztia baliatuz horretarako.

Azken urte luzetan indarrean egon den modus operandi horrek gutxi dauka multilateralismotik, eta nazioen subiranotasuna eta haien arteko berdintasuna bermatzen, eta asko mundu ikuskera konkretu bat inposatu nahi izatetik; ondorioz, Nazio Batuek geroz eta pisu eta garrantzi txikiagoa dute nazioarteko krisiei erantzuteko ad hoc sortzen diren aliantzen aurrean.

Etorkizunean, zer?

Gerra Hotzaren testuinguruak muga batzuk ezarri zituen; eskalada nuklearraren beldurra eta aliantza estrategikoen gatazken gaineko nolabaiteko kontrola mantentzea ahalbidetzen zuten. Hala ere, eta batez ere bloke sobietarraren kolapsoaren ostean, mundua AEBak nagusi ziren polo bakarreko aro batean sartu zen, botere-dinamikak eta botere-harremanak are konplexuago bilakatu, eta nazioarteko zuzenbidea eta arkitektura ahulduz.

Era berean, Txina bezalako potentziak agertzeak eta Errusiak nazioarteko agertokian bere tokia berretsi izanak multipolarismora eramandu nazioarteko ordena, adostasun sumisioan oinarritutako sistema bat ezartzea zailduz. Horrez gain, bestelako aliantza mota batzuk sortu dira, esaterako, Hegoalde Globallean (BRICS, eta haien eskutik Garapenerako Banku Berria). Testuinguru horretan, NBE ez da gai izan ordena globalaren zatiketa

geroz eta handiago horren aurrean egoera berriera egokitu eta horri modu eraginkor batean erantzuteko.

Etorkizunean etor daitekeenaren inguruan, esan liteke Bigarren Mundu Gerraren ostean eraikitako nazioarteko arkitekturak erreforma sakon bat eskatzen duela. NBEk zeregin garrantzitsua betetzen du oraindik laguntza humanitarioaren eta giza eskubideen arloetan, eta beharrezko aktore izaten jarraitzen du hein batean; baina gatazkak konpontzeko eta munduan bakea sustatu eta babesteko duen rola egiturazko aldaketak behar ditu. Bide horretan, nahitaezkoa izango da potentzien interesetik mendekotasunetik ateratzea, bai eta Segurtasun Kontseiluko kide iraunkor diren horien beto eskubidea amaitzea ere.

Estatu mailakoak ez diren eragileen eragina ere geroz eta handiagoa da gatazken konponbidearen alorrean, eta hamaika dira egun ahalegin horretan diharduten gobernuz kanpoko erakundeak (beti ere estatu interesei erantzuten dieten bake zentroak, esaterako). Azpimarratzekoa da erakunde erregionalen papera ere afera horretan, eta baliteke etorkizunean haiek paper zentralago bat jokatzeko ere gatazken konponbidean. Horrek ez luke, bere horretan, NBEren amaiera azkartu beharrik, baina erakunde zentral izatetik erakunde osagarri izatera igaroko litzateke gatazken konponbidearen alorrean.

Osagarritasun horretan, geroz eta pisu handiagoa izango dute Hegoalde Globalaren baitan jaiotzen diren inizatibek, AEBen eta, batez ere, Europako Batasunaren interes propioen kaltetan. Izan ere, Hegoalde Globaleko herrialdeek, euren gorabehera guztiekin, jakin izan dute alternatibak sortzen, Garapenerako Banku Berria sortuz, edota Hego-Hego kooperazio sistemak garatuz, esaterako. Hala, eta pisu geopoliti-

tikoak etorkizunean ekialderantz biratzen jarraituko duela ulertuta, aurreikus daiteke nazioarteko arkitekturaren baitan ere indar eta pisu handiagoa izango dutela Hegoalde Globaleko aktoreek.

Gauzak horrela, mundu konplexu honetan eta elkarrekiko mendekotasuna geroz eta handiagoa den mundu honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da nazioarteko agertokiko eragile guztiak aintzat hartuko dituen marko juridiko bat berreraikitzea, nazioarteko gobernantza-eredu inklusiboago baten adibide litzatekeena, bizi dugun errealitate multipolar honetara hobeki egokituko litzatekeena. Finean, lankidetzaren eremu berriak sortuko lituzkeen marko bat, premia globalei modu demokratiko eta integralago batean erantzungo liekeena.



Matthew TenBruggencate, Unsplash

Ikusmira 3 Green politiken atzera urratsak Europan

2019ko Europako hauteskundeak mobilizazio ekologistek sortutako giroan egin ziren. Europako zenbait herrialdetan gazteak justizia klimatikoa eta politika publiko ekologistak eskatzeko batu ziren. Giro horretan murgilduta eta gehiengo progresista eta kontserbadorerik gabe hasi zuten mandatura eurodiputatuek. Bazirudien, era batera edo bestera, kalean entzuten ziren eskaera horiei erantzunez, Europako Batasuna zenbait konpromiso hartzeko prest egon zitekeela.

COVID-19aren pandemia Europara iristear zela, Europako Batzordeak, Ursula Von Der Leyen kontserbadorea buru zuela, Europako Itun Berdea proposatu zuen eta onartu zen. Europako Batasunak jasangarritasunean aurrera urratsak ematea eta 2050. urtean neutraltasun klimatikoa lortzea helburu zuen. Ituna ez zen inondik inora ezer iraultzailea, eta muga eta hutsune asko zituen klima larrialdiak exijitzen duen urgentziari erantzuteko. Itun Berdeak, besteak beste, 2030. urteari

begira isuriak % 55 murrizteko lege arauak barnebiltzen zituen, baita biodibertsitatea babesteko eta elikadura sistema eraldatzeko neurriak ere.

Europako Batasuna bere sorreratik kudeaketa eta gobernanzarako instituzio supranazional hutsa izatetik harago, identitate eta balio propiodun instituzio bezala proiektatu izan da. Esate baterako, eskubide zibil eta politikoen bermatzaile gisa kokatu izan da, eta beste hainbeste esan dezakegu jasangarritasunari dagokionez. Europako Batasuna litzateke estatuen interes propioen gaintik Europa jasangarria bihurtzeko bermea. Are gehiago, Europa munduan abangoardia gisa kokatu izan da gai horri dagokionez, eta, adibidez, Pariseko akordioaren defendatzaile sutuenetarikoa izan da, munduko tenperaturaren igoera 1,5°Cra mugatzea helburu duena.

Hala ere, Europako Batasuna sustatzaile nagusi izan duten erregio zein mundu mailako foro (COPak adibidez) horiek eraginkortasun oso mugatua erakutsi dute. Klima krisiak kapitalismoaren erroak hankaz gora jartzen ditu, eta foro horietan harturiko neurriek ez dute inondik inora kapitalismoa zalantzan jarri, besteak beste, hazkunde etengabearen paradigman oinarrituak baitaude. Hartu dituzten neurriak klima krisia gainditzera bideratuak egon beharrean, mendebaldearen nagusitasuna mantentzera bideratuak egon dira. Joko-arau berriak ezarri dira pauso txiki batzuk emateko, baina funtsean, ezer ere ez aldatzeko.

Mendebaldeak ezarritako jokalekuan lehia-tzea onartu dute gainontzeko potentzia eta herrialdeek, eta ulertu dute ehun industrialean egin beharreko aldaketek berebiziko garrantzia dutela. Klima helburua betetzeak erronka industrial eta teknologiko ikaragarria dakar, eta potentzia nagusiak jakitun dira eraldaketa

lortzen dutenek kokapen pribilegiatua izango dutela, eta besteak, aldiz, dependentzia egoeran geldituko direla. Eta Europa atzean gelditzen ari da.

Munduko potentzien arteko botere harremanak aldatzen ari dira, eta trantsizio geopolitiko betean gaude. Sarreran genioen bezala, munduko zentro ekonomikoa ekialderatzen ari da, eta mendebaldearen nagusitasun politiko eta militarra ere geroz eta apalagoa da. Bereziki kezkarria da Europako Batasunaren egoera ekonomiko eta industrial. Mario Draghik bere azken txostenean aipatzen duen bezala, Europako Batasunak nazioartean lehiatzeko zailtasun handiak ditu. Gabezia estrukturalak ditu berrikuntzan, digitalizazioan, langileen kualifikazioan eta energia iturri merkeak eskuratzeko gaitasunean.

Horrek guztiak, noski, trantsizio ekologikorako beharrezkoa den birmoldatze-industrialean eragin zuzena du. AEBek eta Txinak, bereziki, aurrea hartu diote Europari, eta askok Europako Batasunaren politika industrial jarri dute jomugan. Herrialde asiarraren politika ekonomiko planifikatuak eta amerikarraren politika interbentzionistak arrakasta izan dute; aldiz, Europako Batasunak bere izaera instituzionalaren ondorioz ez du izan gaitasunik politika industrial aktiboak egiteko, eta trantsizioa gauzatzeko legedia mugatzaila izan du oinarri.

Hala ere, 2008ko krisiaren aurretik egoera bestelakoa zen, Europako Batasuna baitzen eguzki-industriaren liderra munduan. Alemaniaren presioaren ondorioz, 2011ko krisiari Europako Batasunak emandako erantzuna austeritate politiketan oinarritu zen, eta horrek Europaren susperraldia moteldu zuen. Ondorioz, krisiak berak sorturiko egoerak eta austeritate politikek sorturiko inbertsio faltak

Europa industria gabezia estruktural larriekin utzi dute.

Bruselan egoeraren jakitun dira, eta beldurra nabaria da. Horregatik, aurretik harturiko erabaki batzuekiko atzera urratsak egiten hasiak dira jada. Esate baterako, 2022an Europako Batasunak 2035. urterako errekontzako motorrak dituzten ibilgailuak debekatzea onartu zuen, baina erabaki hori ezbaian jartzen ari da Alderdi Popular Europarra azken hilabeteetan.

Esan bezala, europar autogintza birmoldaketa-industrialean atzean gelditzen ari da, eta ez da gai auto txinatarren kalitate eta prezioekin lehiatzeko. Horri aurre egiteko eta europar industria babesteko Bruselaren erantzuna izan da auto txinatarrei muga zergak jartzea, eta auto elektrikoak Europan garesti mantentzea eragin du. Horrek, noski, kontsumoan eragin du, auto elektrikoen salmenta nabarmen murriztu baita, eta, aldi berean, isuriak % 55 murriztea lortzeko beharrezkoa den errekontzako motordun autoak ordezkatzeko atzeratzen du.

Egoera ikusita, eta autogintzaren sektorearen presioaren ondorioz, Alderdi Popularraren proposamena da aurretik aipaturiko debekua kentzea, eta emisiorik ez duten erregai alternatiboak bultzatzea. Badirudi Europako Batasunak trantsizio ekosozialari aurre egiteko eskaerak ziren neurri gutxi horiek ere ez dituela beteko.

Gainera, gauzak asko aldatu dira Europan politikoki. 2024ko europar hauteskunderen giro sozial eta politikoa oso bestelakoa izan da. Mobilizazio ekologisten aldarria apaldu egin da, eta aldaketa klimatikoarekiko negazionista den eskuin muturrak eztabaidak baldintzatu, eta ordezkari handiagoa lortzeko gaitasuna izan du. Kolore berdea beharrez, kutsaduraren grisa nagusi da Europan.

Ekoizpena eta kontsumoa jaitsiko dituzten politika publikoak behar ditugu eta, bereziki, prisma aldaketa bat behar dugu. Klima krisia gainditzeko potentzien arteko lehia produktibista eta logika kapitalistetatik aldendu beharra daukagu. Norabidea irauli beharra daukagu.



Ikusmira 4

Migrazio politikak krisi ekosozialaren garaian

Migrazioaren gaiak zentralitate politiko-media-
tiko handia hartu du azken urte honetan. Orain
arte eztabaida nagusien fokua migratzaileen
harrera prozesuetan jarri bada ere, hemen na-
zioarteko begirada batetik aztertu ditugu egun
nagusi diren migrazio mugimenduen, eta horien
kudeaketarako mugikortasun politiken kausa
eta ondorioak.

Hasteko eta behin, garrantzitsua da migra-
zioaren fenomenoaren zein marko analitikoetatik
interpretatzen dugun argi izatea. Lehenik,
beharrezkoa da burua altxatu eta fenome-
noaren kausetan pausatzea begirada: azken
hamarkadetan martxan diren migrazio pro-
zesuen atzean krisi ekosoziala eta honen
ondorioak daude, nagusiki. Izan ere, Iparral-
de Globalak bere jendarte eredu kapitalista
industrialak mantentzeko (energia kontsumo
izugarrietan oinarritutako jendarte eredu

hiper-mugikorrek³) Hegoalde Globala ustiatu du, bertako ekonomia lokalak guztiz suntsitu, eta errekurso materialak (mineralak eta abar) eta energia iturriak bermatzeko, interbentzio militarren bidez herrialdeak militarki interbentuz (interbentzio militar zuzen zein ez-zuzenen bidez).

Hauek guztiak dira migrazio prozesuen atzean dauden sakoneko kausak: klima krisitik eratorritako muturreko gertakariak (lehortekak, uholdeak, lurrikarak, tsunamiak...), elikagaien krisia (klima aldaketaren ondorio), gerra eta gatazka belikoak, zaintza kate globalak, nahiz pobrezia edo bizitza duinak garatzeko ezintasunak. Hori horrela, datozen urteetan, jakina, migrazio-mugimenduak haztea baino ezin daiteke espero. Azken 40 urtetan nazioarteko migrazio-fluxuak hazi baino ez dira, eta datozen urteetan joera horrek gorantz egingo duela ematen du.

Testuinguru horretan, Iparralde Globalak migrazio prozesuak galarazteko mugak ixtearen alde egin du, logika politiko sekuritario batek gidatuta. Giza eskubideen defendatzailetzat agertzen den Europako Batasunak ere norabide horretan sakontzen jarraitzeko hautua egin du onartu berri duen azken Migrazio eta Asilo itunean (2024). EB gotorleku bilakatzea lehentasun politiko bihurtu da, eta ondorioz, asilo eskaerak egiteko prozedurak gogortu eta mugak diru-truk hirugarren herrialdeetara lekualdatzen eta militarizatzen ari dira. Horrek eskuin muturra indartzea dakar, haien marko politikoak erosten eta elikatzen ari baita Europako Batasuna etengabe, praktika autoritario eta faxistei bideak irekiz horrela.

Hala ere, mugak ixtea eta militarizatzea, kontzentrazio-eremuak sortzea... praktika ilegal eta moralik gabeak izateaz gain, eraginkortasunik ez duten politikak direla ikusten ari gara. Dena dela, mugak ixtean, jendearen desplazamendua praktikan galaraztea baino gehiago, zapalkuntza eta esplotazio erregimenak indartzea bilatzen dela argi izan behar dugu. Muga itxiak gizarteak zatikatzeko, lan-eskua merkatzeko, eta ezberdintasun sozioekonomikoak areagotzeko bitarteko arrazistak dira.

Horiek dira, laburbilduz, egun globalki nagusi diren migrazio politiken kausa eta ondorio negargarriak. Horregatik da beharrezkoa fenomeno hori beste begirada batetik irakurtzea. Azken batean, Hegoalde Globalako biztanleen migrazio prozesuak Iparralde Globalaren ekoizpen (eta erreproduzio), kontsumo eta jendarte ereduaren ondorio gisa ulertzeak abiapuntu justu eta eraginkorrago bat eskaintzen baitigu prozesu horiek ulertu eta kudeatzeko orduan.

Marko horretatik abiatuta, migrazio politiken inguruko ikuspegi justu batek onartu behar du krisi ekosozialaren sorreran guztiok ez garela neurri berean erantzule, eta are, krisi horren ondorioak ere ez ditugula neurri berean pairatzen. Hau da, Mendebaldea da klima krisiaren erantzule nagusia, eta Hegoalde Globala da horren ondorio larrienak pairatzen ari dena; besteak beste, bizitza duin bat garatzeko ezintasunaren aurrean nor bere herritik joan behar izatea. Horrenbestez, gaiari era justu eta eraginkorrean erantzuteko Iparralde Globalak martxan diren migrazio prozesuetan duen erantzukizuna

3. Paradoxikoa da hiper-mugikortasunean oinarritzen diren bizi estilo batzuei eusteko gainontzekoen mugikortasuna mugatzean jartzea konponbidea.

onartzetik abiatu behar du, eta horiei erantzuteko erreparazio bideak planteatu.

Euskal Herriak ere, noski, ariketa bera egin beharko du. Gure herriaren aztarna ekologikoa bi planetatik gorakoa da, eta horren ondorio logikoa argia: gure defizit ekologikoaren zati handi bat beste herrialde batzuen superabitak orekatzen du, hau da, zor ekologikoa pilatzen ari gara. Logika hori barneratuta, migrazio prozesuak oztopatzen saiatu ordez, migratze-ko bide seguruak eraikitzeak izan behar du lehentasuna. Horri gehitzen zaio gai honen kudeaketa beti bi printzipio demokratiko aintzat hartuz pentsatu behar dela: pertsona guztien autodeterminazio eskubidean, eta giza eskubideen errespetuan oinarritu behar dira migrazio politikak. Horrek esan nahi du pertsona orok bere herria uzteko edo bertan bizitza duina garatzeko eskubidea duela, eta, biak ala biak, neurri berean, erabaki legitimo eta errespetagarriak direla. Eta, horrenbestez, bata zein bestea baldintza duinetan garatu ahal izateko baldintzak sortzea da Iparralde Globalak urteetako zapalkuntzak erreparatzeko duen egitekoa.

Horretarako, nazioarteko zuzenbideak babestutako marko legal eta finantzario berri bat beharko litzateke. Horrek orain arte nagusi izan diren migrazio politiken izaera koloniala barneratzea eskatzen du, urteetan Iparralde Globalak pilatu duen zor klimatikoa onartzearekin batera.



Press Service of the President of the Republic of Azerbaijan

Ikusmira 5 BRICS: Narratiba edo alternatiba?

2024a hastearekin batera, BRICS taldea bost herrialde izatetik bederatzi herrialde izatera igaro da. Hala, Brasil, Errusia, India, Txina eta Hego Afrikari batu zaizkie Egipto, Iran, Arabiar Emirerri Batuak eta Etiopia. Saudi Arabiak kide bilakatzeko aukera hausnartzen dihardu, eta bidean geratu da Argentina, Milei presidente izendatu ostean bide horretatik segitzeari uko egin diona. Hala, taldeak egun, munduko biztanleriaren % 45a, BPGaren % 36a, eta petrolio zein gas natural ekoiz-

penaren % 30a du. Berritasuna datuon hantitzea bainoago, AEBen kontrol geopolitikoa nagusi izan den zonaldeetako herrialdeen inkorporazioa da; eta taldea geroz eta pluralagoa bilakatzen ari den honetan, partaideek interes propioak lehenetsi arren, bereizten dituen horretan baina gehiago batzen dituen horretan jartzen ari dira fokua: mundu multipolar bateranzko trantsizioan, euren estatuen burujabetza defendatzea.

Aurrez aipaturiko BRICSen XVI. Gailurrean gorpuztu da 2024ko urria. Errusiaren bihotzean izan da gailurra, Tartaristango Errepublikaren hiriburuan, Kazanen, Volgaren ertzeko hiri industrialean, etnia zein erlijioari dagokienez oso plurala den hirian. Halakoetan, kasualitateak gutxi. 36 herrialderen ordezkariak bildu da bertan, tartean, 20 estatu edo gobernuburu, eta partaideek batasun bat gorpuztu dute gailurrean, AEBek daramaten estrategia ekonomiko eta geopolitikoari desafio egiten dion batasuna.

Batetik, Bigarren Mundu Gerraz geroztik nagusitutako nazioarteko marko instituzionala berregokitu beharra jarri dute mahai gainean. Bide horretan, nazioarteko erakunde eta egituretan garapen bidean dauden herrialdeen ordezkariak eta erabaki gaitasun handiagoa aldarrikatu dute, horiek demokratikoago eta bidezkoago bilakatzeko. BRICSen bueltako herrialdeek ez dute bere horretan bloke ideologiko homogeneo bat ordezkatzeko, baina nazioarteko harremanak ulertzeko eredu berri eta justuago bat behar denaren adostasuna erabatekoa da.

Bestetik, Errusia eta Ukrainaren arteko gerraren ondotik, AEBen dolarraren militarizazioak (aldebakarreko santzioak, aktibo finantzarioak izoztea, nazioarteko ordainketa sistematik kanporatzea...), nazioarteko merkataritza arauetiko konfiantza hauskorra lurperatu du, eta moneta horren hegemonia amaitzeko saiakera abian da. Hegoalde Globaleko herrialdeen artean ezinegona handitu egin da, etorkizunean AEBen interes geopolitikoekin disonante izanez gero, neurriok beraiei ere aplikatuko zaizkien beldur. AEBetako dolarra nazioarteko merkataritza eta finantzen funtsa izan den aroa amaitzen ari denaren zantzuak agerikoak dira, horrek zein norabide hartuko duen argi ez dagoen arren. Hainbatek Yuanak dolar estatubatuarra ordezkatzeko duela diote,

beste hainbatek BRICS taldeko herrialdeek moneta komun bat garatzearen alde egiten dute, eta badira nazioarteko merkataritzan dolarrak gaindi beste dibisa batzuk salerosketetarako indartuko direla diotenak ere. Baina bi gauza daude argi: AEBek ez dute dolarraren gainbehera nolahi gertatzen utziko, eta euren eskuetan dauden bitarteko guztiak baliatuko dituzte nazioarteko moneta sistemaren kontrola mantentzeko, horren galerak euren arkitektura ekonomiko eta produktiboaren gainbehera ekarriko baitu. Eta Hegoalde Globaleko herrialdeek dolarraren dominazioa amaitzeko adostasuna duten arren, horren alternatiba eraikitzerako orduan interes kontrajarriak eta bitarteko zein baliabide falta nabarmena dute. Aldaketa ez da egun batetik bestera izango beraz.

Ukraina eta Errusiaren arteko gerrari dagokionez, mendebaldeko herrialdeen jarrera eta apustu belizistari kontrajarrita, Hegoalde Globaleko herrialdeek negoziatioa aldarrikatu dute gatazkari irtenbidea emateko mekanismo gisa. Txinak, Brasilek eta Indiak irtenbide negoziaturako deia egin dute gailurrean, eta Errusiak hiru herrialde horien bitartekaritza onartu du balizko negoziatioetarako. Mendebaldeko herrialdeen apustu belizistaren aurkako noranzkoan ageri da berriz ere Hegoalde Globala, gatazka horrekiko mendebaldean hedatu den errelatoa hankaz gora jarriz, eta segurtasunaren inguruko eztabaida termino integraletan egitera bultzatuz.

Beraz, mendebaldearen nagusitasuna edo, gutxienez, funtzio arautzaile eskusiboa amaitu da nazioarteko harreman eta arkitekturari dagokionez. Analista ugari diote Hegoalde Globala bultzatzen ari den nazioarteko ordena ekonomiko berriak merkataritza izango duela helduleku nagusi, energia zein baliabideen eta produktu industrial zein azpiegi-

turen trukea, alegia. Orain arte AEBek sustatu eta lideratu duenak finantzak izan ditu oinarri, dolarraren nagusitasuna erdigunean, eta AEB gainontzeko estatuen likideziaren hornitzaile nagusi izan da. Horrek esan nahi du ordena ekonomiko berria lehengaiak garrantzia berezia hartuko dutela, dibisen kaltetan, eta mendealdeko herrialdeek, baina bereziki, europarrok, arazo larria izan dezakegu etorkizunean, lehengaiak dagokienez herrialde txiroak baitira gureak.

Azkenik, Hegoalde Globaleko herrialde geroz eta gehiagok azaldu dute BRICS taldeko partaide izateko euren interesa, eta jada hamahiru dira estatu kide elkartuak. Baina balizko hedapen horrek areagotu egingo ditu herrialdeen arteko koordinazio arazoak; izan ere, mendealdearen hegemoniaren aurrean, arau, harreman-bide eta elkarreragite bide berriak bilatzeari dagokionez bat egiten dute, baina horiek gauzatzean interes propioak gailendu ohi dira nazioarteko harremanetan, eta horiak, sarritan, elkarren aurka joango dira. Mundu unipolarren amaiera agerikoa da, baina ikusteke dago oraindik datorrena multipolarra izango ote den, eta zein forma hartuko duen.



Salah Darwish, Unsplash

Ikusmira 6

Siria: Ordena geopolitikoaren joskera guztiak kraskatzen ari dira (edo inperioaren kontraerasoa).

2024ko azken hilabetearen hasiera zorabigarria izan da: Georgian koloreen iraultza bat aktibatuzeko saiakera, hauteskundeak irabazi zituen gobernu aldatzeko; Hego Korean lege martzialaren aplikazioa, berehala Parlamentuak ezabatu zuena; Errumaniako hauteskunde presidentzialak bertan behera uztea, NATOren aurkako hautagaiak irabaz zezakeelakoan; eta ikusgarriena Sirian Al-Assaden gobernu erortzea izan da. Ordena geopolitikoaren josturek kirrinka egiten dute

nonahi. Gertakari horiek guztiek mundua astintzen duen tentsio izugarria erakusten dute, eta horrek ezohiko erabakiak hartzea eragiten du; gainera, erabaki horiek ezartzen dituztenek defendatzen omen dituzten oinarri demokratikoen aurka doaz.

Agian, gertaera garrantzitsuena Siriako gobernuaren gainbehera izan da, Turkiak lagundutako talde jihadistien erasoaldiaren ondoren. Amaiera azkarrak mundu guztia

harritu du. Argi dago giza eskubideen etengabeko urraketek Al-Assaden gobernuaren legitimitatea txikitu dutela, baina erorikoa ez da herriaren garaipena izan. Era berean, ez da ahaztu behar Siriaren aurkako setioak hamalau urte iraun duela, eta Astanan Turkiaren, Errusiaren eta Iranen arteko akordioak sinatu arren, presioak ez duela etenik izan. Turkiarren erasoak aldizkakoak izan dira, baita estatubatuarrenak ere. Israeldarrek ere sistematikoki bonbardatu dute azpiegitura militarra eta zibila, baita Al-Assad erori ondoren ere. Siriak 2011n egunero ateratzen zituen 400.000 petrolio upelak 100.000 baino ez dira gaur egun, eta horien % 75 kurduen eta AEBen kontrolpean daude. Gasa eta petrolio aurrekontuetako diru-sarreraren laurden bat ziren, eta, beraz, setio ekonomikoak hil egin du Al-Assaden gobernuak; Kubatik Irakeraino iparramerikarren inperialismoak asko erabilitako taktika.

Aldaketak ondorio garrantzitsuak ditu eskualde osoan: Iranek funtsezko aliatu bat galdu du, Libanon eta Palestinan bere aliatuekin korridore bat mantentzea ahalbidetzen ziona. Palestinar herria da, beharbada, okerren gelditzen dena, isolatuago eta laguntza txikiagoarekin. Horrez gain, Libano da Israelen espantsionismoa jasan dezakeen hurrengo pieza. Bestalde, Israel garaile nagusia bihurtzen da, etsai zuzen bat suntsitu, bere gaitasun militarra deuseztatu, eta herrialdearen zati garrantzitsu bat bereganatzean, jada okupatzen zuen Golan gainetatik askoz haratago. Hala ere, testuinguru horretan, ikusteke dago nola garatzen diren Iranen eta Saudi Arabiaren arteko harremanak -orain dela gutxi eta Txinaren bitartez berreskuratuak-; batez ere garrantzitsua izango da ikustea ea Saudi Arabia prest al dagoen Israelen proiektu handi hori bermatzeko, non mundu arabiarak Siria eta Libano sakrifikatuko lituzkeen, bi herrialdeetako komunitate xiitak suntsitzearen truke.

Errusiak ere aliatu bat galdu du, eta segur aski galdu egingo ditu Mediterraneoan mantentzen dituen baseak (Latakia eta Tartus), Afrikarako zubi bezala erabiltzen dituenak. Inbertitu dituen ahalegin militar eta diplomatikoek ez dute lortu Sirian bere aldeko gobernu bat mantentzea. Turkiak, NATOren laguntzarekin eta Israelen babesarekin, bere inperioaren parte izan zen eskualde bat kontrolatzen du berriro. Ankararen kasuan, kezka nagusia kurduak dira; baina kurduak AEBen aliatuak dira, eta AEBek herrialdearen beste herena hartzen dute. Donald Trumpek ez du interes berezirik erakutsi Sirian, eta Irango eta Afganistango hondamendien ostean, litekeena da Erdoganen eta Netanyahuaren eskuetan uztea, AEBetako indarrak Txinan zentratzeko.

Azkenik, ikusteko dago Damaskon boterera igo diren indar integristen amalgama gai den giza eskubideak eta herrialdeko gutxiengo ugariak errespetatuko dituen gobernu bat egituratzeko. Baliteke igartzen den Siriaren balkanizazioak beste gerra zibil amaigabe bat eragitea, Siriako herriak eta kurduenak odol askorekin ordainduko luketena.

Mendebaldeak berehala ospatu du garaipen hori, aurkarien galerak handitu ditu, eta norberaren garaipenak goraiatu. Reutersek banatutako analisi batek, adibidez, berehala ziurtatu zuen Al-Assaden erorketa kolpe gogorra dela Txinak eskualdean dituen ambizio diplomatikoentzat. Baliteke solaskide bat galdu izana, baina Txinako diplomaziak lortu du Teheranek eta Riadek harremanak berreskuratzea, eta Al Fatahek eta Hamasek Gazaren etorkizunari buruzko akordioak lortzea.

"Erorketak ondorioak izango ditu testuinguru geopolitikoan; denborak erakutsiko du aldaketa noraino iritsiko den. Oraingoz,

gainbeheran dagoen mundu unipolarraren eta azaleratzen ari den mundu multipolarraren arteko islada da. Eskualde horretako xake taulan Mendebaldeko blokearen mugimendu bat da, baina partida ez da oraindik bukatu nahiz eta gerra eta interbentzionismoa nagusitu diren. Osagai horiek guztiek beste hondamendi handi baterako ernamuina dute, eta ziur aski, beren maniobregatik zapal dutako herriek ez dute ahaztuko eragindako sufrimendua.



Guillaume de Germain, Unsplash

5. Hainbat gogoeta

Euskal Herritik idatzi dugu Munduari So, talaia honetatik abiadura handiz aldatzen ari den mundu ezegonkorra irakurri dugu, eta trantsizio luze batean murgildurik dagoela azaldu. Mundu konplexu honek krisi ekosozial globala bizi du. Geroz eta kapitalismo basatiagoa planetako hegoaldean, baita iparraldean ere; "azelerazio erreakzionarioaren" mehatxua hedatzen ari da.

Ordena hori definitzen duten faktoreez mintzatu gara, hots, AEBek zuzendu duten globalizazio neoliberalaren gainbeheraz, nazioarteko ordena Indo-Pazifikoruntz lerratzear, eta beste potentzien emergentzia eta multipolaritatea agertzeaz. Bukatzeko, eta ondorio gisa, azken ideia hauek azpimarratu nahi genituzke:

Euskal Herria ez dago trantsizio horretatik kanpo, aipatu ditugun faktoreek eta horien ondorioek eragina dute burujabetzarik ez duen gurea bezalako herri batean. Horregatik, arreta jarri nahi izan dugu ondorio batzuetan:

1. Trantsizio geopolitiko honetan **burujabetza** funtsezkoa da; burujabetza gorpuzteko, burujabetza materiala behar dugu eta, era berean, erabakimen gune bat, eskumen zalantza-ezinekin. Hori gabe gure herriak ezingo du bere erabaki propioen arabera bere burua gobernatu.

2. Garai honetan, **Nazioarteko Zuzenbidea** eta **Nazio Batuetako Karta** gure erreferentzia izanik, hiru heldulekuz baliatzen gara munduan kokatzeko: bizi izan dugun herri esperientzi propioa oinarri izanik, konbentziturik gaude **elkarrizketa eta negoziaketa** direla gatazka politikoak gainditzeko biderik eraginkorrenak. Herrien **autodeterminazio eskubidea**, burujabetzaren errespetua eta esku hartze edo **injerentziarik eza** gure jardueraren nahitaezko zutoinak dira. Eta hirugarren heldulekua: **eskubide ororen eta askatasun demokratikoen errespetua** dugu.

3. Eskuin muturreko olatuaren aurrean, **demokrazian sakontzea** da txertorik onena. Horrek esan nahi du demokraziaren alderdi formaletatik haratago joatea, eta herriaren gobernuan sakontzea, komunitatean oinarrituta eta guztion ongia (bien común) lortzera bideratuta.

4. **Ekoizpena eta kontsumoa jaitsiko** dituzten **politika publikoak** eta era berean **deskarbonizazio politika publikoak** behar ditugu, bereziki, prisma aldaketa bat behar dugu. Klima krisia gainditzeko, potentzien arteko **lehia produktibitate eta logika kapitalistetatik aldendu** beharra daukagu. Eraldaketa sakonak behar ditugu

5. Iparralde Globalak martxan diren **migrazio prozesuetan** duen **erantzukizuna** onartzetik abiatu behar du, prozesu horiekiko erreparazio bideak planteatuz. Euskal Herria ez dago bide horretatik at, guk ere erantzukizuna badugu (aztarna ekologikoa, kolonizazio politikak, jarduera kapitalistak...). Honen aurrean, migratzeko **bide seguruak erakitze**ari lehentasuna ematen diogu, eta **bi printzipio demokratiko** planteatzen ditugu: pertsona guztien autodeterminazio eskubidea, eta norbanako ororen eskubideak errespetatzean oinarritzen diren migrazio politikak.

6. Trantsizio garai hauetan, **lehia geopolitikoak gurean eragina izan du**, eta izango du, Ukrainako inbasioaren ondorioz ikusi genuen bezala, egun Palestinaren kontrako genozidioan edota Ekialde Hurbileko gainerako gatazka belikoetan (bizi baldintzak okertzea, eskubideak murriztea, lurak ustiatzea, sekurokrazia politikak nagusitzea, eta baita balio eta praktikak patriarkalak, xenofobo eta homofoboak ere). Horien aurrean, ezker independentistaren nazio borrokak politika antimilitarista, feministak eta herri eta klase zapalduen borrokak barneratuko dituen pentsamendu internazionalistari ekin dio, nazio askapenerako borroka **internazionalista** ere badelako.

